

Gaitu proiektua

**BATU DITZAGUN
GURE AHOTSAK,**

TEKNOLOGIARI
EUSKARAZ
IRAKASTEKO



gaitu.eus

**SARTU
ETA EMAN ZURE AHOTSA**



Adimen artifizialak euskaraz egin dezan

Erronka berri bat dugu euskaldunok: makinek gure hizkuntza ulertu eta hitz egin dezaten, lehenago irakatsi egin behar diegu.

Hizkuntza gutxituak ez daude enpresa teknologiko handien asmoetan, eta euskara, guk euskaldunok sartu behar dugu mundu digitalean.

Horretarako, milaka ahots behar ditugu, milaka grabazio ordu euskaraz.

Common Voice euskaraz

Ekimen irekia da, irabazi-asmorik gabea, kolaboratiboa eta orain masiboa bihurtu nahi dugu.

105 hizkuntzatan hasiak dira Common Voice-en ahots ekarpenak egiten, eta ia beste hainbestetan prestatzen ari dira. Oraintxe (2023ko ekainean), hauek dira datu esanguratsuenak:

Ingelesa Orduak 3185 Balioztatzeen aurrerapena 75% Hiztunak 86463 Esaldiak 1659712	Kinyaruanda Orduak 2387 Balioztatzeen aurrerapena 84% Hiztunak 1085 Esaldiak 1404853	Gaztelania Orduak 2242 Balioztatzeen aurrerapena 20% Hiztunak 25034 Esaldiak 1079313
Frantsesa Orduak 1058 Balioztatzeen aurrerapena 88% Hiztunak 17228 Esaldiak 2119390	Katalana Orduak 2859 Balioztatzeen aurrerapena 67% Hiztunak 31410 Esaldiak 1161764	Euskara Orduak 150 Balioztatzeen aurrerapena 68% Hiztunak 1241 Esaldiak 61299

Auzolanean egingo dugu

Elkarlana sustatzen ari gara, proiektuan eragile asko inplika daitezten. Erakunde handiak zein txikiak, pribatuak zein publikoak, azken finean, gizarte osoa.

Eta guztion artean sortuko dugun ahotsen datu-basea gero teknologia enpresa guztiek erabili ahal izango dute euskarazko tresna eta aplikazio berriak sortzeko, euskaldun guztion onurarako.

Lagundu iezaguzu eragile eta herritar euskadunek proiektu honetan parte har dezaten.

Zure ahotsa garrantzitsua da

Ahots asko eta askotarikoak behar ditugu, milaka: adin tarte, genero eta mota guzti-guztietakoak. Eta zurea ere bai, noski.

Horretarako sartu hona, mesedez: **gaitu.eus**

Eta grabatu 30-300 esaldi bitartean. Oso erraza da.

Guztion artean ekarpen polita egingo diogu gure hizkuntzaren eta kulturaren garapenari.

